Euskaleŕiko beŕiak

GIPUZKOA

Aizarna

Ikastaroa bukatzlkoan eŕiko Ikastoletan urteko lanen erakusketa jaŕi zuten.

Bera ikusitzen ibili ziranak oso pozik ertea ziran egiten diran lanak ikusita. Beragatik zorionak irakasle jaunai eta umeai ere.

—Gure Luistaŕak bene benetan aziyak ditugu beren bilera ondo ... abili nayaz, jun zan igandera... Luis Doncaren irudia ekaŕi zuten baita bere biziko elizkizunak egin ere.

Goizean mutil guztien Jaun artzea ¡ura ikuzkizun edera! Aŕatsaldian beŕiz Jauna agirian zala bezperak, agurtza donea, itzaldia A. Goikoetxeak J. S. jaunarekin onespena eta gero bazkide beŕien saŕera. Ondoren Luis Deunaren irudiya onetsi eta bere gorpuzkiña gurtuta, ibildeuna atera zan irudi beŕiyarekin.

Elizakoa amaitutakoan bilera zaitzale auek aukeratu ziran: denen buru Eŕazti'tar Franzisko, Idazlari Lizaso'tar Fidel; diru zai Etzagire'tar Zezilio; batzarkidiak: Agiŕetar Jose Manuel, Iruŕeta'tar Migel, Aizarna'tar Kasimiro, Guŕutxaga'tar Serapio eta Txapartegi'tar Felix.

JAYOTZA

Iribaŕen basetxean alabatxo bat geyago dute; lengo egun batean batayatu zuten Maria del Karmen izena jaŕiaz. Zorionak.

ERIOTZA

Itzira zabal basetxeko seme Lodobiko anaya «Hermanos de las Escuelas Cristianas» deritzayonetan lekaide zegona Bidasoa izeneko ibaian urtatuta itorik atera zuten beŕiya izan degu.

Bere sendiari samin aguŕa ematean, irakurleai otoitz bana eskatzen diegu bere gogo alde.—*Egi-zale.*

Albiztur

GEREZIAK BILTZEN ZEBILEN ZUAITZETIK ERORI TA EZKEREKO ESKUMUTURRA AUTSI

«Atxisaeta» baseŕiko Zelaya'tar Juan, 18 urteko Luistar zintzo eta gure alkate jaunaren semeak zoritxar ori izan du. Azkar eta ondo sendatzea opa diogu.

Aurtengo gerezi biltze garaian zorigaitz aundiak izan ditugu eŕian. «Kareaga-txikiko» nagusia, sendatu da. Kanpoan ibiltzen asi baita. Poztutzen gera.

GURE BASERITARRAK BILDUR DIRA

Eudia ota eudia bear eta ez bai du egiten.

Belar eta gari geienak giro onean ebeki ta jaso badituzte ere, arto, babuŕun eta gañerakoakin bildur dira, eudirik saŕi ez badu egiten.

Igazko urteaz aztu ezin da
aurtengo bildur beŕia,
batzuei zala jaŕi zaiote
ordaintzen etxe saria.
Gaizki oituak-gorde bear lukee
jan t-edanean neuria,
bestela saŕi berekin dute
sendatu ezin dan zauria.

MADRID'KO SENDI BAT

Auŕeko urteetan bezela aurten ere, udatea igarotzera etoŕi-ta «Irazuzta bekoan», Aramendi'tar Fedro konzejalearen etxean dago: eta Pedro'ren senide eta ilobak dira noski. Ondo etoŕiak.

EIBAR'KO URKIOLA'TAR PEDRO, ANGO LUISTAREN BURU-ORDEA

Gazte alai ta jatoŕa, egiteko batez etoŕi-ta emen agurtu genuan igaro diran larunbat eta igandean. Pozez agurtu ere.

Igaro zan Azila'n Loyola'n, Luistaŕan txanda berezi artan Gogo jardunak egiten, alkaŕekin izan bai giñan.

Aitatu genitun
orduko eguñak,
Aita Agiŕe-ta
an giñan lagunak.

Luistar.

Alegi

Bukatu dira eŕiko pestak. Am. Birjiñ Karmengoaren eguniaz prizesio eder baten ondoren Meza nagusia. Bertan Azin'tar Jose Domingo eŕitar apaizak sermoi bikaiñ bat egin zuan.

Estela'ko dultzaineroak eta bertako txanbolińek saya galantak egin zituzten soñu jotzen. Tolosa'ko Plax ere bere txibilitua aubakin eta sudoŕakin joaz emen ibiltzaigun kalez-kale.

Jendia egun oyetan eŕaz ibil da. Batez ere igandian Tolosa'ko musika etoŕi zanian plazan jendia ezin kabitu ta sagardotegi, taberna, Bar ta kafeak bete-beteak lepozeraño arkitu ziran.

Pelota partidu, koŕikalari, zinta ta gañerako jolasak, ikusgaŕiak izan ziran.

—Asteartian Bitoriko gure Obispo Mujika jaun agurgaŕia izan degu emen. Amaketan Altzo'tik baŕura sartu zan eta alkate jauna, konzejal, Marian alaba, Luistar eta gañerako eŕitar guztiyak ongi etoŕi gogoangaŕi bat egin zioten. Aingerutxu batzuek lore ta usoak bota ta San Iñazio'ren martxa txanboliñak joaz, eta leyo apainduen eta bi osto ta lore zubi azpitik pasa ondoren Elizara zan eta ontxen bere ikustaldia egin da gero 270 umeri segida edo konfirmazioa eman zioten.

Eŕetore etxean bazkari bikaina bat egin da laister Orendain ta Abalzisketa igo zan ango neska-mutilak konfirmatzera.

Ongi etoŕiya Jaunaren izenean datoŕena.—*Moakolei.*

Altza

¿Zer?... Ezer ez, aste onetan Altza gaiñ ontan. Nere zeŕaunaz betetazagon «saxko» ontatik ez du oenepein ezerek irten nai. Baĥan bai, oraintxe oroitzen zait lengo igandian ikusi nuan ikusgaŕi edeŕa. Altza'ko aitonak eta aitak Jaunartzen, lepotik bera Jesusen Biotzaren irudia, danen auŕian bildur gabe erakutzirik. Zer ikusgaŕi edeŕagorik!!

Zeñen ederki erakusten dizkiguten gure asabaren oiturak. Lengo euskera, euskaleŕi eta euskaleko oituraidi begiratu ta poz atzegiñez betetzen zait biyotza. Oroingo euskera euskaleŕi eta oiturak ikusi ta ¿zer egingo det? Zuek esan.

—Baseŕitaŕen arpegiak egun auetan izan ditugun beruakin, itun xamaŕak jortzen aziyak ziran, baĥan gutzaz beñere astutzen ez dan Jaungoikua, beren otoitzetako eskaerak noski, ur ederarekin ordaintzen azi da, eta iŕibar gozua nun nai ikusten degu.

Oraingo eudi edeŕa
Jaunak du bialdu,
Zuen mendeko gauzak
Ez ditezen galdu.
Eskeŕak emotiaz
Ez zaitezte astu,
Eman dizunak biŕiz
Ez deizkitzun kendu.

Aŕano.

Aŕua

TXIMIST ARGIA BASAŔITAN

Aspaldi onetan zai-zai geunden baseŕitarentzat, tximist argia iritxi zaigu. Bestelako argitasuna dago gure baseŕietan joan dan astea ezkero. Zorionak auŕerapena ori baseŕietan ekarzta aiñ gogor olegindu dianentzako.

IRUGARENDARAK

Ileoko irugaŕendaŕen elizkizuna, joan dan igandean izan zan. Jaunaren inguruan aŕatzaldeko elizbiran jende asko zan.

BATAYUA

Ibiñaŕitako Azpeitia'tar Eŕamun ta Modextak izan duten aurtxoa, Karmelo izenakin asteazkenian batayatu zuten.

ERI JAYAK

Asteroko eskuratutzen zaigunea ko eŕi jayetan egongo gera. Etxe zuritze asko ikusi degu. Faketsu igaroko alditugu santa Ana egun oyek. Uŕunguan jayen beŕi emango degu.—*Ziolar.*

BAÑU
ta
ondartzarako
jantziak
New England

Azpeiti

EGUN AUNDI BAT

Izan zan juan dan igandian geure eŕi onean gertatu gai... lusten ziran kaleetan gisa sene... aide aundiyak batek eta bestuak galdetzen zuten zer gertatzen da gaur?

Zorziretan izan zan txiŕingada, apustu bat Lakuteko semiak eta auerbeko aldagoitiko seme zaŕeak Azpeiti'tik irten du Zarautzera juan etoŕi irebazi zuan Aldagoitik, zergatik Azpeitira iritsi baño len Lakutek estrapozo bat eginda Urolako Eŕekara eroŕi zan amalgaŕiya zan zergatik bestela oiua aiñetxe aiñetxe zuan.

Jaupa nagusiya bukatu zanian Enparantza nagusiyan Eŕiko Erestzak jo zituan euskel soñu ederak poz pozik egon giñan, Lezari aditzen Iñaki Deun jaietan ere oŕelaxe saiatu soñu zikiñik jo gabe.

JAYOTZA

Uriarte'tar Eusebiren emazteak au bat izan du. Ama alabak onik arkitzen dira. Zorionak.

ERIOTZA

Geure adiskide Felix Zartaizen semia 18 urtekua il da; urte asko zuan gaitz gaigaŕi batek eukidu ta Jaungoikuak bere Donokiyan gorde dezala. Laguntzen diyogu beren naigabean Felix eta bere emazte eta ezagun danari. Irakurle otoitz bat beraren alde.

BATZARA

Juan dan igandean aŕatzaldeko elizkizuna bukatzean izan zan langilien Lagundiko edo (Koopeatibako) batzaŕa. Iturbe'tar Josek esan zituan artu emanetako gora berak bazan diru pranko; eta boial beŕi jaŕi dituzte: Bereziartua'tar Santiago (Mentero) Aberdi'tar Kaietano (Bentatxo) Labañaga'tar Domingo (Atsan) ta bere mutilak mostradoreko artzeko ayek lenbailen artu eta diru asko gorde ulengorako. Eguneko eltze emango emen dute 7 dirutan eta atzeratuta dauden telatan danien dantzue one gizontzue.—*Arauntz mendi.*

Beizama

Aldabako eta emengo bi mutilek oi orduan zenek gari geiago ... egin oa zeukaten apustua astelenean jokatu zuten. Auŕeko egunetik dirua aldabataŕen alde zegoen, biri ogei egiñak ere baziran, esaten zutenez; baño betzamataŕak amar aroba geiago gtaki eta apustua irabazi zuen. Egun oŕetan eŕiko enparantza automobilez betea eta alderdi guztietatik gizon talde aundiak ikusten ziraden.

Oztatu beŕiko Gornaga'tar Frantziskok aetomobil eder bat erosi du. Beajundeizula, eroso ibili nai degunerako, alderdia jaŕi di guzu ta.

—Eŕiko seme Otaegi'tar apaiz jauna egun oetan bere gurasoen etxean arkitzen zaigu. Zorionak gudaritza bukatu dezulako eta orain Obispo jaunak paŕoki on bat ematea opa dizugu.

—Marina donearen eguna santamañataŕen artean igaro genduen. Eliza zapi edeŕez eta lorez apaiñ apaiñ egiña eta eletrizidade argiz eguzkia bezin argi zegoen. Ezagunda eŕetore jauna benetan saiatzen dala bere eliza edertzen. Meza nagusia guztiz ederki abestu zuten Albiztur'ko Laskibarta'tarak eta organista Garbizu apaiz argiak daukan sona ongi merezia zeukala, ezagutu genduen, elia soñuari eman ziozkan asmoldi edertan. Itzaidi guztiz bikaiña egiñ zigun Goyazko eŕetore jaunak, Marina donearen animako garbitasunari jaŕaitzeko, guziori biotza sutuaz.

Uŕustilko dultziña joleak naiko dantza gazteai eragin zioten. Susko zirien tunpatakoakin zakut bat aztoratu ta aŕen igesi mutikoak laisterka edeŕak egin zituzten.—*Igaratxo.*

Bidani

Nekazariak, bete bete dabiltza gari egitan. Urtabe zoroa da'a t... ez dira asefe, gure Jaungoikoar, eskeŕak ematen beŕiz badegu lan.

—Juan dan ostiralean, bere aita eta zaindari dan Paul'tar Bizente Deuna ospatzeko pestak izan ditugu mojetan. Goizetik meza nagusi edeŕa, ikastetxeko neskatxak abestuta; ondoren erlikiari muñ ematea eta aŕatzaldean beŕiz elizkizun polita Jauna ageri zala. Elizatxoa apain apaiña eta jendez osatuta egontzan.

Ondoren, izan genduen beste ikuskizun bat ere. Mojatxuek eramanda juan giñan ikastetxera, eta ez zitzaigun damutu noski. Asko uste ez genduen gauza agertu zitzaigun. Urte baŕuan, eskolako neskatxoak egindako esku lanen erakusketa.

Esku lan polit, eder, eta maila guztitakoak ba ziran antxe. Eskuz egindako galtzerdiak, konponketak, soñekoak, Elizako zapiak, leyo zapiak, aurdika edo almohadoiak, eskuz egindako lore eta onelako beste amaika gauza ba zegon.

Denak saiatu ba dira ere, auŕeneko malan jaŕi dira noski batzuek.

Laŕañagako Pilomenak oestalki izugari bat. Saiaberia'tar Julik almohadoi bi, lore eta lorezitziak; Irtarteko Arantzazu'k leyo sapi polit batzuek; Astiolako Eŕeuteri'k maierdikoa eta soñekoak; Labaka'ko Juana Mari'k bordatutako oi zapiak; Arana'tar Fiedad'ek maierdiko zapi eta beste jostailuak.

Mojak ta neskatxoak lan egin dutela ezagun da, eta batzuei bezela besteai ere zor diegu gure ... eta zorionak.

Eŕiko maisu eta maistra ere ez dira atzetik juan. Bakoitzak bere ikastetxean azaldu dituzte baita ere eskola umeen auŕerapen eta ...

Maistraren eskolan, Aŕetxeko Juanatxo, Ostatuko Eŕomana, ... ko eta Estiolako diran auŕean jaŕi diranak, bere lan politakin.

Poz izatekoak gauza ock, maisu maistra eta gurasoentzat batez ere.

Ara emen gaztetatik saiatzeak dakazkin ondoren pozgaŕiak. Ara emen baita ere gurasoentzat erakutsi edeŕa.

Ondoren onak izateko egiñ asi ona eta ontako zuzendu aŕetaz eskolara zuen umetxoak.

Eŕeka bera dijoanean
Mendi gañetikan ura
Ez utzi juaten gerota ustean
Bertatik artu ardoraz.

Umetasuna laister juaten da
Ta biurtzea ez uste izan
Umetan nola, ala zaŕetan
Zuen edo okeŕian
Gerotxo damutu ezdakogizun
Saiatu umetasunian.

Bereziartua'tar Jose eta bere sendia, Durango'n izan dira, eŕi artako Agustin'daŕen mojetxean bere alaba Karmen'en profesa ikusten. Zorionak guraso eta alabari.

Iriarte txikiko Patxi mutiko azkaŕa, kaputxinotako, Altzazu'ra juan omen da.—*Laia Zale.*

Elgoibar

DEUN LAURENTZI

Il onen 20'an beatzietatik amaietara bitartean sei areoplano ikusi genduzen pasatzen Donostia alderuntz, jendeak bazalan zaratia, batzuek esaten zuten aŕano aldenbat izango zirala akilur ostian ardijanen bat egiten izanda, beste emakume batzuk beŕiz, ološtara zetozen aaŕi gaiztoa batzuk izango zirala ta egnaŕak gorde ezinik eztu ta laŕi, izan ere nork sinistuko du ba an gizonak jun leikezenik, txoritxoak dirala idulitzen da begiratu baten da.

Emen bertan ere asi da jendea oien antzeko ibiltak egiten, apaldian izilitzamaŕik egonda Zoru eta aldeko areopianoori ta gaur amabozt berebizko aguduen eteŕia izan beur du Loriortatik Zorutara mutil gazte batek, ez omen zuan segundo asko igaro bideatu.

Egun ortan kaletar gazte koadrila batek bazkaria izan zuten da aŕatsaldian bururatu jako bai manejau beaŕik gabeko areoplano ortan ibili beur duala ta bai kunplitu ere bere desea, batzuek bi mila peseta gatik ez omen litzekez jaŕiko. Argiñen markia bete du beintzat oŕek.

Ta gero ibilera oŕen kontrako «mitina» ere egin ei zuan Zumaŕaga'ko batek mai gañera urtenda, izan ere aŕisku aundiko gauza da ta saŕi pasatzen azten bada jendea, baten bat deskuidatuko da.

NERE NAIA BETE

Aspaludian ametzetan ere beti ARGIA'ren jaio ta eŕian nenbiŕen, ta noizpait ere bete det neure desiuari, lengo egun baten uztegabeko jun bear bat izan nuan a bai bazteŕak ederki ikusi ere, paraje edeŕak dira bai, baño nik neure txokuan bizi naiago, Garijai 28 ere ikusi genduan begira egin alditxo bat egin ere bai, ba ura sartzen ez giñan auzartu, arengo juten naizenian ba zukalderaño tapa tapa.

EURI ESKE ASI DA JENDEA

Eŕogatibak egin bear ei dira, kanpua galdu badeien, tira, ez da geizki esana, baño lenbizi pentzatu deigun ongi euria ta beste eskatzen ditugunak merezoi ditugun edo ez, ongi betetzen ote ditugu amar aginduak? igandea tortzen da ta bateze premirik gabe egun guztia lanian igarotzen dezue askok, ta lan egitea da bat, ta meza aiñ eŕaz uztea da beste bat, agindu baten iru pekatu egiten dituzute bista bistakuak, meza uztia bat, premirikgabe lan egitea bi, jendean bistan lan egitekin ematen dezuten ezkandalua iru, agindu au oŕen eŕez austen duanak bestetan ert zerbait izan ... du.

Ta gero «ora pro nobis», «ora pro nobis», esan da euri edeŕa ... dezala Jaungoikuak, etziok gaizki, ai, ai, amaika enel bagaude neu auŕenengo naizela, ta Jaungoikuak eŕukia neretzat eta oientzat izan dezala.

[illegible]

Datoŕen ilaren 10 ori, ez gaude ... gonordatzen zaituet lenbizi «Lugzear» artuta, etoŕi nai dezuten guztiak berebil eder bat artuta, oide edeŕa dagota, alkar ezagutu ta, ezkurtxio bat eratuta, egun bat igaroko deguta, txintxin bat ekartzen badezute ongi obeto artuko zaituela S. Lontzon nik esan beaŕik eztago ta.

Jendea ari da urteroko prepara tibuetan egun oŕetarako. Usurbil ta Abeŕi emen dabiltza atzera auŕera euren katxaŕuekin.

Abeŕi tente xamar dabil aspaldian, zera ere bilatu omendu ta. Durango'ara beraz ¿eŕ urte on as kotaraño, zusotana jantzita noiz xiustko egon naiz ta eugano edera sartu ouaza.

GITA M. 'RI

Barkatu, zure galderari erantzuteko astirik ez det izan gaur arte ta. Mazusta tinta gaztatu edo alpertu egin naizen esaten zenidazun? ez bata ta ez besten, tinta badet oraindik, ta alpertasunak beŕiz azpalditxoan baztefian utzita gabiltza, utzi bear artuak dizala, gariak dimla bata dala ta bestia dala «zera» tgitekore astirik ez degu. Da gari ebatera ere etoŕiko zerala nun bizi naizen esateŕen? gariak jo ere egin genduzen, baño «Batenbat» nun bizi dan jakin nai badezu bidea erakutziko dizut, ura, S. Lontxorako bideari jaŕaitu beldurbe puzkaten zeekobide kurutz ere arte, ta an utzi auŕerako bidea ta artu zeraldera ta stgi zerian gora zeeraño, ta aintxe zeeko zerian bizi naiz ni. Ta nai dezunian etoŕi, «Abeŕi pikaro» ta «Mirentxu» lagun artuta. Merienda bat egingo degu etxeburuko kerispeas jaŕita. Keixak gaztatu ziran baña igasko saŕiak baditut gordeta. Guztatzen bajatzuez jango ditugu eŕeta.

Agur «G. ta M.» idazle beŕi «Mirentxu» ta pikaro «Abeŕi».

Batenbat.

Eŕenderi

[U]RIKO TXISTULARIEN KONTZERTUA

Igandian amaika terditan esanda zuguan bezela, bere asiera eman zioten.

Lengo idatzian au bear bezela azaldu ez nuelako barkatu biar nazute. Eŕiki etxe azpian, Euzko abesti edo txistu soñua jo zuten, ura notintza bildu zan. ¿Nola ez? Ango txaluak jo geniozkan merezi zuten gazte langile kementsuoiei. Auŕera gazteak jaŕai bide zuzenari, ta nere zorion sutzuak bialtzen dizkitzuet, batezere Lizaso'tar Alejandro buruzai jaunari.

JAIOTZA

Fikabea'tar Joxe Maria'n emazteak seme eder bat izan du. Zoriona.

ERIOTZA

Igaro dan ostegunian Jaunak bereganatu zuan Mitxelena'tar Faustino, 30 urteko gizon gaztea. Ostiralian illeta aundi bat izan zuan bere il etortzeta notiñ asko bilduaz. G. B. Nere samiñ aguŕa bere emazte ta senide guztiai, ta irakurle maitiak bere gogo alderako eskatu.—*Itulalde.*

Irun

Zorigaitz goŕiya gertatu zayte San Martzial ikastetxeko irakasle maitee. Atsedenezko opor egun atsegiñ bat igarotzeko asmoz ate ta ziran guztiyak goizetik auŕeko larunbatean etxetik, eta Endarlatz alderontz jo zuten. Afatsaldeko bostak inguru, egunak ematen zuen berotasun alamenkora gorputzetik astintzeaŕen, Bidasoa'n bustialdi bat artzera batzuei otu zitzayen; eta ortan, urtan sartuta minutu t'erdi baŕu, Hermano Carlos'i bat-batean biyotza gel ditu egin zitzayon, eta berealaxe urptra juan zan, eta urpetik ilda atera zuten.

Mendu on-onduna zan bera, atsegiña, argiya ta onbidetsua osoro. Ogeita zortzi urte zituen, eta Aizarna'n jayoa zan.

Astelen aŕatsaldean ekaŕi zuten Bera'tik bere gorputza, eta beralaxe obiratu zuten. Astearteean elizkariyak gure eliz-nagusiyan bere animen aldez.

Otoi irakurle.

¡Goyan bego Sal'eko Juan Bautista Guren'en seme zintzoa!

—Udara usaran eŕuz dabil jendea, batera ta bestera, alde oetan. Beso gabeko eta... buru gabeko emakumea, beŕiz, elemena. Lotza, ordea, uŕi dabil. ¡Jaunak guarda!—*Kresala.*

Bragero ta faja-ola
Sociedad General de Higiene
Urbieta, 9 ta Garibai, 22
Gomazko salgaiak:
GOMAZKO PERAK
LABATIBA-GOMAK
GOMAZKO LABATIBA-ZIRIAK
GOMAZKO AIZE-BIDEAK
BERO NEURKINAK (termometro)
GOMAZKO-PELOTAK
ESKOBILAK
GOMAZKO-BRAGEROAK
ERA GUZIETAKO GOMAZKO JOSTALUAK
"La Hermana"
marka duten
[illegible], Gauak eta lotzaŕak
onenak dira
Sendalari ospetsuenak
on-emanak dira
Sociedad General de Higiene
Urbieta, 9 ta Garibay, 22

Legazpi

IKASTOLAKO LANGILEN ERAKUSKETA

Ilaren 17'tik 22'era izan dira eŕi onetako ikastoletan dabiltzan neska-mutilak auŕeko ikastaldian egin dituzten langiten erakusketa.

Lan orien sari bezela liburu bana eman zioten eta ilabete ta erdiko opor aldiai ere begi argiak ipiñi eutzen.

UDARA IGAROTZERA

Auŕeko astean juan zan bere etxera Donostira Zapiain'tar Imanole eŕi onetako irazasle azkara. Oso ondo igarotzera besterik ez diot opa.

MIN ARTUTA

Lengo egun batean Brinkola'ko aŕobi battan lanean ari zala tiro batek aŕapatu eta eskua zauritata utzi zion Madinabeitia'tar Joseba'ri.

AZTIRIKO PESTAK

Ilaren 18 eta lengo igandean izan dira Gabiria'ko baltza polit oŕetako pestak.

Naiz egun batean ta naiz bestean eŕi ontatik makiñabat jende igo zan batezere igandean andre juno aizuanik ez det uste gelditu zanik emen.

Bero ikusgaŕia zan eta an inguruan zeguan itzŕi batera jende juaten zan adi ematera eta ¿zer gertatu zala uste dezute? ba ainbeste ezpain jaŕi zitzaion zuŕupaka eguŕia kendu eziñik ere ozkeerako agortu egin bear izan zuan geiago eziñik eta gero Nikolasen ur gozua eran bear majo ordaindu.

EGUNKARIA ESKUETAN

Lengo igandean emengo ARGIA saltzaleak eskuratu ziguten egunkari euskaldunaren muestra...

Egunkari euskalduna izatea zan euskaltzale guzion naia eta ia izan dezakegu izango degula geuk euskaldunok nai badegu.

¿Iru mila arpidetu bear dutela diote? Bagaude iru mila euskaldun baña ugarigorik eta ¿arpidetxo bat ukatu egingo ote diozute euskal egunkariari?

Ez bilduŕik izan onek ez duala beŕirik ekaŕiko eta olakorik ez, onek erderazkoak ekartzen dituan guztiak eta gañera euskaldunoi dagokion gauza asko ekaŕiko ditu.

Zu irakurle maitea ez jaramonik egiñ iñoi eta arpidetu zaite euskal egunkarian auxen da euskaldun batek gaur euskerak egunkaria atera ezkero etamango duan auŕerapena eramateko egin dezakenik gauzarik edeŕena eta ez dezula ukatuko uste ret.

Ori denok egiten badegu berealaxe iñork uste duan baño lenago euskal egunkaria izango degu geure etxietan eta orduan atsegin aundiakin abestuko degu.

Poz aundia degu
geure biotzetan.
Euskal egunkaria
degulako etxietan,
euskera jaŕi degu
toki berezian,
irabazirik zaukan
bai oixe aspaldian.

Argi zale.

Lezo

ERIYOTZA

¡Au munduko ez-berdintasuna! Nunai beren eŕiko Zaindaria ospatzea dala (ospatzea bere neuŕian ongi dago) gaur itxaso nastuaren antzera, ikusten dira eŕi oietako asko. ¡Zer tamalgaŕia! Ez dute uste orko gazte asko ta askok, geiegizko iai-naski oietan da biltzan orok, eriotza iritxiko zayetela lapur bat bezelaxe.

Uztaila'ren 18'ko ilunabaŕean; euzkiaren sarkalde onduren, munduari agur ustel bau egin ta. Jaunarea begian, lo gogo batean etzan zan Labordeta'tar Anjeuta, 22 urteko neskatita. (G. B.) Marian ataheko zan, eta bere ooiratze eta il-otoitzeta, Miren alaba guztiek, ondo etoŕi zaizkiyon. Otoitz, bere gogo alde, irakurle maite oŕek.

ELIZBAYAK

Juan dan igandean, Jesus'en Biotzeko anaidikoak, izan zuten beren ileroko Jaunartze aundia, eta beste elizkizunak.

IBILKETAK

Poltzakoa ustu naiyez; eta Lourdes'ko Amari maitasuna agertu naiere ziotelakoz, an izan dira aste ontan, Aŕieta'tar Joxe Maria, bere emazte Sarasola'tar Kandeŕaria'kin, Irazu'tar Joxe, bere emazte, ama ta anaiakin. Ongi ibili dira noski, ta guk uste askotan oŕelaxe ibiltzia danoi opa diogu.

JAYAK

Ei auzoetan jayak eduki aŕen, Pasai Donibanera, irauli gera, gu.

Kimatik ura tantaka, egon giñan, ango «baŕeretan» zezenak ikustea gatik. Amak, ezan ba zigun «or egon beardek» un... lana eranko... la «Ikur», euskel idazle jatoŕa, lumo nola astitzen den.—*Anastaxio.*

Mutriku

[E]RIKO JAIAK

Igaro ditugu gure Zaindariaren jaiak jaunari mila esker guk gure aldetik ondo igaro ditugu ta. Xexenak ere ikusi ditugu kanpoko toliadoriak zirala ta juan giñan zerabit ikusteko ustean ta xexenak baño toliadoriak saltaka ariñago, ta ori gutxi dalakuan «Eibar'ko Beltzak» amar dura osiu etzitun bat gero jakiña giltzapera.

¿Eta oŕelako gizona ikaŕi toliadore? Elgoibar'ko eresbatza ere emen izan genduan baita pelotariak ere baño «kafia» artzen.

Eliz jaiak goi goitnekuak izan ditugu gure Txadonako abeslariak beia ta beŕiro beren trebetasuna erakutzi zigun; Salbe edeŕa ta meza nagusi goi guienekua abestu zigun ta ibildeuna beŕiz toki gutxitan oi dan bezelakua gure eliz baŕutiko apaiz gaiakin.

Itzaldia esan genduen bezela zuzendu zigun gure eŕitar apaiz argi Aginagalde jaunak erderaz ta euskeraz.

Nere idazkortza oso motela da bear dan bezela onen beŕi ematzeko ta azketai irakurle zerbaiten utz egiten badet.

Bere egokitasunarekin zuzentzen digu agur jamur maitekor bat bere eŕitar geradenoi baita ere agur biotzeko bat badu an Asturias aldean dabiltzan aŕantzale bulartzuentzat tre ta Magadaloko Maria'ren bizitzia agertzen digu baita ere ipiñi izpilutzat gure Zaindari onen sinismena betari jaŕai daiogun.

Bagenoigun itzlari bikaña zagla baña orain entzun ondoren oso pozik gelditu gera ikusirik gure arteko itzlari jakintsua.

Artu bada ARGIA'rtn bitartez gure zorionik beroena Aginagalde jauna ta jaŕai auŕera oŕelaxe.

Emen gelditzen gera bada argiak piztu ezkeroko jaien beŕi eman nai ez degulako.

GIZON BAT IL

Lengo astean Bilbo'tik etoŕen bultziak aŕapututa il zuan Iriondo'tar Frantzisko (G. B.) ... zapiko gizona.

NASTU TA LABUR

Gure Txadonako apaiz laguna (koadjutore) artu dute gure eŕitar apaiz Ureisti'tar Migel jauna. Zorionak ta ongi etoŕi zure tokiko maitera.

—Jaiek igaruta juan dira beren tokitara Gastelu Uŕutia'tar Andres apaiz jauna, Ibaŕa'tar Mitxtxau, Pagua'tar Jose, Aŕieta'tar Pepito ta Peña'tar Migel ta beste asko. Ondo ibili guztiok.—*Itxas-ume.*

Oiartzun

Donostiyan juan dan astian euskal egunaz zeraa ta emengo ... antxen ikusteko zoria izanou degu. Zorionak lauko sorta oŕeri eta auŕera jaŕaitu orain go goguakin.

Sañistebanak ere gañian ditugu; aurten sesenak omen ditugu; beko plazan, ta gañera zartzikua, aberiaren batzaldiya, eta abar; baskariyan uŕezko babak, olaskuak eta aŕoza. Oŕa naiko pesta. Oetzaz gañera artugenduke pozik emengo txistulari pizkoŕaren konzierto bat. ¿Ez altza izute ongi iruditzen?

Eŕoma'ra egin den apaiz-gayon peregrinazioa oŕetara juan zaizkigu Ibaŕa'tar Teodoro eta Lekuona'tar Martiñ. Ongi ibili.

Eakon deyetan daude «Lokolo» baseŕiko neskatxa «Egiziar'ko» mutil gaztiakin. Zorionak.

Iturjota «Toŕeko» Melitona'ri autxo jayo beŕiya zeruŕa igo zayo.

«Bastida»ko andre gaztia Jaunak bereganatu du G. B. beren etxekuai gure naigabia agertzen diogu.—*Mirentxu.*

Tirrrrrrin...
—Nor da
—Ni.
—Zer beŕi dakarzu.
Beŕi onak auŕenekoa, zakar samaŕa ezik.
—Zerba?
—Zea; alegiya Sanistonak eldu dirala ta beko plazan esia egiten ari dirala zezenak ateratzeko: zer pesta.
—Pesta edeŕa.
—Ori pesta edeŕa izatezkero, ezda gaizki etoŕiko zardin-zaŕa salsa bayonesakin.
—Ajaja!... ta gañerako jayen beŕirik bai aldezu?
—Ez oraindik ezdegu «programika» eskutaratu.

BERIYAK

Jostandegi eder bat jaŕi dute Merzedes Riera ta aizpak, garai ontan naiko lana izango dezute, ta auŕera ere ala opa dizutet.

—Eliz atzian etxe eder bat egiten ari zaigu emengo alkate dan Inazio Aginagalde jauna.

—Baseŕitaŕak euriya nai gendukela ta kaletaŕak ezdutela euri beaŕik, naiko istilu dabilkigu; gure esku balego zer egingo ote zenduke aunari eskeŕak oraindik ez daukate itxura txaŕik kanpoak.—*Pilipa.*

Ordizia

Andoain'en, aita Laŕamendi zanaren omenez, jaya egin bear dala entzun utsarekin, poz dardara egindu Euskal Eŕi osouk. Alako seme Euskaltzalea izan ere seme ... zan aita Laŕamendi zana. Jayo zan 1667'ko Lotazilan, edo Abenduaren 25'an egoaŕ eguna gozeko lenengo orduan. ¡Zer poz zoronekoa zuten bere aita Domingo'k eta ama Manuelak beren seme Manueltxo ikusi zutenean beren auŕean! Aintzan seme argia. 17 urterekin Ernaniko ikiastolan asi zuten uŕuna andik Bilagarzia (Galizia) uŕuna Medina del Kanpo'ra, andik, Salamanka'ra gero Azpeitira. bere adinetako 76 urterekin ludi onetatik agur eginda Goi Jaunaren besoetan iltzan. (G. B.) Orain dira 186 urte iltzala baita 200 urtere aurten idatzi edo liburuak argitaratu zituala, ausi gogoŕa, iriabazi ondoren 8 ministrori Euzkera zala emen sortzeko auŕenengo izkuntza edo, ... etzutenak asgiritu zituela (el imposible vencido) jaŕaitukodu.

Eun larogei ta sei urte dira
aita Laŕamendi iltzala.
euskaldun anak zaitu dengun
ark, utzi zigun itzala.
ondo dakigu seme utzia
edo aloŕa etzala
beragaitikan saya gaitezen
gu ere ura bezela
guztion aitak bere eskuan
aŕen eduki dezala.

Elaubin Eŕotari.

Pasai (Jon Done)

Gure makil dantzariak auŕeko igandean oso ederki dantzatu zuten Lasarten. Mutil txiki txikiak zirala asi siraden lan onetan eta orain aundidu diradenean berdiñ gordetzen dituzte arintazun eta burtazunak. Zorionak danontzat eta berexi berexiak beren irakasle Manzisidor'ar Albontza jaunarentzat, bera bizi dan artean eŕi ontaki dantzariak ospetzuak izango dira.

—Bakaŕi aŕantza edeŕak egindu etoŕi dirade «Bendabal» «Galerna» eta «Alfonso XIII» izeneko luŕun ontziak, iruren artean 1700 tonelada bakalu ekaŕi dituzte. Notintza aundia dabil bakalu antolaketan.

—Ur aunditze lanetan gogor ari dira. Europako dragarik bikaŕenetakoa dala diote, eta ala izan goda; aldameneko gangilak azkar loies betetzen diru.

Juan dan astelenean lanean ari ziradela oŕa zer gertatu zitzaioten. Uri ontatik auso eŕi San Fedro'ra itsaspetik dago ur gezigarotzeko «tuboa» eta ustegabean an autzi eta eure auso eŕitaŕak ur gabe gelditu ziran udako beroik aundienean; baiñan azkar ... asi ziran antolaketan.

—Gure aŕantzaleak luŕun ontzi txikitakoak oraloxe eta txaldiñe aŕantzten dute baña ontziteoak txipiroi gutxi oraindik.—*Ilur.*

Pasai (Trintxerpe)

Grandsoi'dik dabiltzan aŕaste... aŕantza ederak dabiltzate, azaingo aldian etoŕi diradenak ekaŕi dituzte iru'tik lau mila ... gañera, eta gero bixigu eta beste aŕaiak berexita.

Juan dan igandean Pasai alde onetan laŕitasun oleŕa igaro zan Artaza jaunaren aŕastero bikoat (pareja) «Urola» eta «Bigaŕena» alkaŕekin aŕantzan ibiltzen dira.

Biko auek botzen dute sarta bien artean ibiliaz, eta urpean sareak bote dembora igarotzen lurbean, lenbiziko bota aldian batek eta gero besteak jasotzen dute; eta jasoten duanak sare eta aŕai lanak egiten dituzte eta oŕa igarotzen dituzte egunak eta egunak itxasoan.

Jakiña dago bein sei edo amar egun igaro eskerb etxera etoŕi gabe gisonak aspertuko dirala; baña berak ere bear ez bezelako oitura daukate.

Azkeneko bota aldiko lanak egiten ari ziraden bitartean ontzi bat, bestea etxeoruntz abiatu, edo bat bestea baño azkaŕago baldin bada etxera azkar irixteagatik ba ta bestea galduta etortzea ere askotan gertatuda.

Len izendatu dituten oietako «Bigaŕena» larunbat ilunabaŕean etoŕi zan eta bere lagun «Urola» igande egun guzian ageri ez. Deun Jonekoa zan berak zeukan zuzendaria (patroia).

Brus bide txaŕak oldoltuaz bere laguna juan zan bila eta 16 orduko bidean biltatu zuan tresna edo makinako puska biaŕeneko bat puskatuta. Astelenean iritxi ziran onera.

Orainguan eguraldi edeŕak gertatu zaizkate; eta eguraldi txaŕak gertatu ezkero? Aŕkar galdu gabe ibiltzeko oitura artu, itxasoan ez dago jolasketik.—*Isi.*

Segura

AINGERUTXOA ZERURA

Aldanondo eta Etxeberri'tar Santon, amabi eguneko aingerutxoa astelen goizean Jaungoikoak bereganatu zuan. G. B.

JUN-ETORIAK

Emen agurtu ditugu Madrid'ko Soradil kondearen sendiko andre Karmen eta.

PROFESAK

Igaro danastelenean izan ziran emengo lekaretxe edo konbentuan Oiartzun eta Tolosa'ko bi neskaren profesak.

ELIZA BERITZEA

Emen agurtu degu Bergara'ko margolari edo pintore ospetsu bat eliz-nagusia bear bezela zenbatean margoztu edo pintatu leiken ikusten. Guzira 36 bat mila peseta bear omen dira eta diru ori bertako jaun agurgaŕi batek emango ote duen entzun degu. ¡Bejondaiola jaun agurgaŕi ori! Eŕi guziak gogoan izango du eliz-nagusiari egiten dion esku-erakutsi bikain ori. Bijoakio auŕetik gure zorionak ere.

UDALDIA IGAROTZEN

Urteroko oiturari jaŕaituaz udaldia igarotzera etoŕi zaigu Molina zanaren alarguna bere alabarekin.

TXISTULARIAK

Datoŕen ilaren 4'an Gazteiz edo Bitoria'n izateko ikastaldiak ... gogor ekin diote gure txistulariak. Galartza, Alkorta eta Berasategi, Iriarte buru dutela diñoaz eta txapeldun etortzea opa diogu.

EURI ESKE

Nekazariak eskatuta igaro den astelenean egin ziran aŕen eŕogatibak.

«MIS GIPUZKOA»

Donostia'n euren ustez neskarik edeŕenari «Mis Gipuzkoa» ipiñi diotela ta ori baño «Xapi Gipuzkoa» obeto zegoela oŕelakoentzat entzun degu.—*Otain.*

Leŕoak alkaŕen aŕimatugi egiten dituzula eta gure linotipista jaunak ez emen date bear bezin garbi ikusten. Emendikan auŕera eŕoak hanakatugoak egin bearko dituzu. Barkatu.

Tolosa

ESTAIAK

Otegi'tar Arturo tolosar gaztea aister ezkontzekoan da Letamendi'tar Juanatxo neskatx onarekin. Lengo igandeko meza nagusian entzun genduan deia. Zorionak.

BERI SAMIÑA

Zugasti'tar Ixidra, Txakon jaun arotzaren emaztea il da 56 urterekin. Bere atsekabe gogoan laguntzen diotegu senar eta etxeko guztiai ta bere gogo aldez Aita Gure bat eskatzen zaie ARGIA'ko irakurleai. Jaunak Berekin bera.

ORIAMENDI'N

Ibili aldi atsegingaŕi bat egin genduen lengo igande atzaldean leku aitatuetara oietan Oriamendi tontor polit oŕetara, karlista gudariak soñu aundiko garaipen bat iritxi zuten lekura. An ibili giñan ordu pare batean an dauden oroipen aietako gauzak ikusiaz. Ta baita ere an goian, mutur-mutuŕean, gogoŕa ekaŕi genduan, gure euskal biotz garbiaren asele biziaz, euskaleŕiari ... bat egindako ... urte betetzen.

Ta saminasunezko lengo abesti bat lagun artean bota ere:

Legiak utzitu eta
gauzak egiña
belzak bearlakorik
ez da iñoiz sortuko...

Gurasobide.

YOLANDA
2 peseta

LA EQUITATIVA
(Rosillo'k sortua)
Seguru guziŕetako Bazkun Españar jatoŕa
Biziŕazko Seguroak (Norberarentzat eta taldeentzat)
Automobil-seguroak (Ezuzkai egindako kalteak, lapuŕetak, zorigaitzak)
Uztegabezko aldartetzazko seguroak (Norberarentzat eta alkartearentzat)
Sute-Seguroak (Etxeak, ...)
[illegible]
Bazkunaren ordezkari nagusia
S. Zabala Urdangilleta. P. Colón, 4. Donostia
[illegible] 14-12